Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2025-03-27
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2025-04-03
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00031/2025 - Data/Fecha: 2025-04-03
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-04-03
GZko 12.gaia onartuta - Aprobado, asunto 12) de OD



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA,** Bizkaiko Lurralde Historikoan lan-aukerak sustatzeko Lan Berri Programaren 2025eko ekitaldiko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onesten dituena.

**DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA** por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2025

I

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak helburu nagusi bat du enpleguaren arloan: langabezian dauden pertsonak laneratu daitezen lortzea eta, aldi berean, Bizkaiko enpresetan askotariko talentua sar dadin erraztea. Horretarako, lan-aukerak sustatzeko zenbait jarduera-ildo ezartzen dira, langabeziaren gizarte-kostu handiena jasaten duten langabeentzat (luzaroko langabeak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, gizartean bazterturik daudenak edo horren arriskua dutenak, eta gazteak) eta Bizkaiko enpresentzat, horrela modua izan dezaten behar dituzten profilak berenganatzeko eta laneratzea mesedetu dadin, zeina gauza egingarriagoa eta iraunkorragoa baita kasu batzuetan, enpresari autonomoaren edo enpresa kolektibo txikiaren formulen bitartez.

Bizkaiko lan-merkatuak arazo bat du, eta horren isla da, alde batetik, langabeen % 50 baino gehiagoren langabeziaren kronifikazioa, eta, bestetik, langabezian dauden pertsonen % 50 baino gehiago emakumeak direla.

Aurrekoari gazteen langabezia gehitu behar zaio, egungo eta etorkizuneko gizarteari eragiten dion

I

El objetivo prioritario del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad en materia de empleo, es lograr la inserción laboral de las personas en situación de desempleo, y al mismo tiempo favorecer la incorporación de talento diverso en las empresas de Bizkaia y, para ello, se establecen diferentes líneas de actuación de promoción de la ocupabilidad, dirigidas a personas desempleadas, principalmente personas desempleadas de larga duración, personas mayores de 45 años, mujeres, personas en situación o riesgo de exclusión y personas jóvenes, a empresas de Bizkaia al objeto de que puedan incorporar los perfiles que requieren y a favorecer la inserción laboral, en algunos casos más factible y sostenible, mediante fórmulas de empresario autónomo o de pequeña empresa colectiva.

El mercado laboral en Bizkaia cuenta con un problema que tiene su reflejo, por una parte, en la cronificación del desempleo de más del 50% de las personas desempleadas y, por otra parte, en el hecho de que más del 50% de las personas que están en el desempleo son mujeres.

A lo anterior, además, hay que añadir el desempleo juvenil, como un problema que afecta a la sociedad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arazo bat delako eta egiturazko eta gizarte-eraikuntza inklusiboko elementu gisa aurre egin behar zaiona.

actual y a la del futuro y que necesita ser afrontado como un elemento estructural y de construcción social inclusiva.

Hala, bada, nahitaez heldu beharreko erronka da lortzea langabezia ez dadila kronifikatu emakume, gazte, 45 urtetik gorako langabe eta/edo luzaroko langabe, eta desgaitasunen bat duten pertsonen artean.

Por ello, lograr evitar la cronificación del desempleo de las mujeres, de las personas jóvenes, de las personas desempleadas mayores de 45 años y/ o desempleadas de larga duración, y de las personas con discapacidad, es un reto que es necesario abordar.

Ildo horri jarraikiz, enpleguaren arloko jarduerak kolektibo ahulenetan ardaztu behar dira, lanpostuan prestakuntza-, orientazio- eta laguntza-aukerak ematen dituzten enplegu-plan integralak eginez. Hori guztia, aldez aurreko zaurgarritasun-egoera areagotzea saihesteko eta kronifikazio-egoerara igaro aurretik egoera hori konpontzen saiatzeko.

Las actuaciones en el ámbito del empleo tienen que ser focalizadas en los colectivos más vulnerables, mediante la realización de planes de empleo integrales que den oportunidades de formación, orientación y acompañamiento en el puesto de trabajo. De forma que se evite la intensificación de la previa situación de vulnerabilidad y de resolver su situación antes de pasar a una situación de cronificación.

## II

Horregatik, foru-dekretu honen bidez, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lan-aukerak sustatzeko programa bat garatu nahi du, hiru jarduera-ildo dituena.

Lehenengoan, laneratzen laguntzeko programa bat ezartzen da, orientazioarekin, prestakuntzarekin eta bitartekaritzarekin, langabeei zuzendua: 45 urtetik gorakoak, luzaroko langabeak, desgaitasunen bat duten pertsonak eta bazterkeria-arriskuan daudenak.

Bigarren jarduera-ildoan, laneratzen laguntzeko programa bat ezartzen da, gazteei orientazioa, prestakuntza eta bitartekaritza emateko.

Eta hirugarren lerroan, esku-hartze goiztiarreko programa bat ezartzen da kualifikazioa duten 30 urte arteko gazte langabeentzat, lehenengo lan-esperientzia lor dezaten laguntzeko.

Jarduera-ildo bakoitzean, laguntzak emateko, norgehiagoka bidezko prozedura erabiliko da.

## II

Por ello, el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad prevé en este decreto foral desarrollar un programa de ocupabilidad con tres líneas de actuación.

En la primera se establece un programa de acompañamiento a la inserción laboral con orientación, formación e intermediación dirigido a personas desempleadas: mayores de 45 años, de larga duración, personas con discapacidad, y en riesgo de exclusión.

En la segunda línea de actuación se establece un programa de acompañamiento a la inserción laboral con orientación, formación e intermediación dirigido a personas jóvenes.

Y en la tercera línea se establece un programa de intervención temprana con las personas jóvenes desempleadas de hasta 30 años con cualificación, a fin de puedan lograr una primera experiencia laboral

En cada línea de actuación, las ayudas se otorgarán por el procedimiento de concurrencia competitiva.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

III

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio foru-dekretu honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren (aurrerantzean 3/1987 Foru Araua) 17.2 artikulua irakurrita. Azken horrek xedatzen du Foru Aldundiari dagozkiola araubide erkideko aldundien eskumeneko gaiak, eta, ildo horretan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.d) artikuluak ezartzen du probintziako diputazioen berezko eskumena dela «probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetza ematea, arlo horretan beste herri-administrazioek dituzten eskumenekin bat etorriz».

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 60/2024 Foru Dekretuaren arabera, sail honen helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetza zein garapenaren arloko politiken bidez.

IV

III

La competencia sobre la materia objeto de este decreto foral corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con el artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia (en adelante Norma Foral 3/1987). Éste último dispone que corresponde a la Diputación Foral aquellos asuntos que son competencia de las diputaciones de régimen común y en este sentido, el artículo 36 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local establece que es competencia propia de las diputaciones provinciales, «la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social y en la planificación en el territorio provincial, de acuerdo con las competencias de las demás administraciones públicas en este ámbito».

Conforme al Decreto Foral 60/2024, de 6 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, este departamento tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

IV

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Dirulaguntzen programa hau jasota dago Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bigarren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (1. helburu estrategikoa, 1.1 jarduera-ildoa).

Este programa de subvenciones está incluido en el segundo Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad (Objetivo Estratégico 1: línea de actuación 1.1.).

## V

Dekretua prestatzean genero-ikuspegia txertatu da, honako hauek betez: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena (aurrerantzean 1/2023 Legegintzako Dekretua); 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua); eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Ildo horretan, foru-dekretu hau izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena gehitu da.

## V

En la elaboración del decreto se ha incorporado la perspectiva de género, en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante Decreto Legislativo 1/2023), de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y del Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del Género.

## VI

Dekretu hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

## VI

El decreto se ha elaborado teniendo en cuenta los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia que regula el Decreto foral 63/2019, de 28 de mayo.

## VII

Foru-dekretuak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioei erantzuten die. Dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da, eta haren xedapenak

## VII

El decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y recogidos en el artículo 3 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aintzat hartu dira hura egin eta izapidetzean. Honako txosten hauek egin dira:

1. Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.
2. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezkotasunari buruzko txostena.
6. Klima-inpaktuaren ebaluazioa.

Foru-dekretu honek, halaber, aldez aurreko kontsulta publikoaren eta informazio publikoaren izapidea bete du, ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta izapide horren emaitzak kasuan kasuko memorietan sartu dira.

cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes.

1. Informe de evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del Género.
4. Informe de control económico.
5. Informe de legalidad.
6. Evaluación del impacto climático.

Así mismo, ha sido sometido a trámite de consulta pública previa, e información pública conforme lo previsto en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, cuyos resultados han sido incorporados a las correspondientes memorias.

## VIII

Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari foru-dekretu bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko, zerbitzu juridikoen txostena jaso ondoren; eta 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua) oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko aukera ezartzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak du horiek onartzeko eskumena.

Halaber, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoak, 39.k) artikuluan xedatzen duenez, foru diputatuei dagokie Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzea, onets ditzan, beren

## VIII

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005) habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe de los servicios jurídicos; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 (en adelante Decreto Foral 34/2010), establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sailen berezko gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren ekimenez eta Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren,

para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de Empleo, Cohesión social e Igualdad y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia.

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea*

Bizkaiko Lurralde Historikoan lan-aukerak sustatzeko dirulaguntzak (Lan Berri) emateko oinarriak eta deialdia onesten dira, 2025eko ekitaldirako; haren testua ondoren erantsi da.

Artículo único. *Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de concesión de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia (Lan Berri), del ejercicio 2025 cuyo texto se incluye a continuación.

AZKEN XEDAPENAK

DISPOSICIONES FINALES

Azken xedapenetako lehenengoa. *Arauen garapenerako gaikuntza*

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru-dekretu honetan aurreikusitakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion dirulaguntzak ematea.

Era berean, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskabideak aurkezteko epea luzatzeko edo ixteko, baldin eta 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusitako kasua gertatzen bada edo aurrekontu-zuzkidura agortu edo handitzen bada.

Era berean, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio dirulaguntzetarako deialdi berriak irekitzeko, baldin eta aurrekontuetako baliabideak agortzen ez badira.

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo normativo*

1. Se faculta a la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en este decreto foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015 o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarraldia.*

Disposición final segunda. *Vigencia.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru-dekretu hau 2025., 2026. eta 2027. urteetan egongo da indarrean.

Tendrá vigencia durante los años 2025, 2026 y 2027.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea*.

Disposición Final Tercera. *Entrada en vigor*.

Foru-dekretu hau *Bizkaiko Aldizkari Ofizial*ean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Este decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Bilbon, 2025eko XXaren (e) (a) n.

Dado en Bilbao, a xx de xx de 2025.

Ahaldun Nagusia / La Diputada General

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua / La diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad

TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Lurralde Historikoan lan-aukerak sustatzeko Lan Berri Programaren 2025eko ekitaldiko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia.

Bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2025.

AURKIBIDEA

INDICE


I. TITULUA

TÍTULO I

Xedapen orokorrak

Disposiciones generales

1. oinarria. Dirulaguntzen helburua.
2. oinarria. Definizioak.

Base 1. Objetivo de las subvenciones.
Base 2. Definiciones.

I. KAPITULUA

CAPÍTULO I

1. arloa: Langabeei laneratzen laguntzea; batez ere, 45 urtetik gorakoei, luzaroko langabeei, desgaitasunen bat dutenei eta bazterkeria-arriskuan daudenei.

Área 1: Acompañamiento a la inserción laboral de personas desempleadas principalmente: mayores de 45 años, de larga duración, con discapacidad, y en riesgo de exclusión

3. oinarria. Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea.
4. oinarria. Erakunde onuradunak.
5. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta muga.

Base 3. Hecho subvencionable.
Base 4. Entidades beneficiarias.
Base 5. Cuantía y límite de la subvención.

II. KAPITULUA

CAPÍTULO II

2. arloa: Gazteei laneratzen laguntzea

Área 2: Acompañamiento a la inserción laboral de personas jóvenes

6. oinarria. Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea.
7. oinarria. Erakunde onuradunak.
8. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta muga.

Base 6. Hecho subvencionable.
Base 7. Entidades beneficiarias.
Base 8. Cuantía y límite de la subvención.

III. KAPITULUA

CAPÍTULO III

3. arloa: 3R Gaztea Programa

Área 3: Programa 3R Gaztea

9. oinarria. Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea.
10. oinarria. Erakunde onuradunak.
11. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta muga.

Base 9. Hecho subvencionable.
Base 10. Entidades beneficiarias.
Base 11. Cuantía y límite de la subvención.

IV. KAPITULUA

CAPÍTULO IV

Ibilbide edo programen baldintzak eta dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulua.

Requisitos de los itinerarios o programas y cálculo de la cuantía de la subvención.

12. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak.

Base 12. Acciones subvencionables.


Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

13 oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulua

V. KAPITULUA

**Aurrekontu-kredituak**

14. oinarria. Aurrekontu-zuzkidura.

II. TITULUA.

**Araubide juridikoa**

15. oinarria. Araubide juridikoa.
16. oinarria. Organo eskudunak.
17. oinarria. Arau-hausteak eta zehapenak.
18. oinarria. Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.
19. oinarria. Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.

III. TITULUA

**Dirulaguntza emateko prozedura**

20. oinarria. Laguntza-eskabideak aurkezteko lekua, modua eta epea, eta ondorengo izapideak eta ESEPEan izena ematea.
21. oinarria. Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa eta elkarreragingarritasuna.
22. oinarria. Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.
23. oinarria. Emateko prozedura.
24. oinarria. Eskabideak baloratzeko irizpideak.
25. oinarria. Ebazpena.
26. oinarria. Errekurtsoak.
27. oinarria. Dirulaguntzari uko egitea.
28. oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.
29. oinarria. Emandako dirulaguntzen publikotasuna.
30. oinarria. Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren zabalkundea egitea.
31. oinarria. Jakinarazpen elektronikoa.

IV. TITULUA

**Gauzatzea, justifikazioa eta kontrola**

32. oinarria. Gauzatzeko epea.
33. oinarria. Justifikatzeko epea.

Base 13. Cálculo del importe de la subvención

CAPÍTULO V

**Créditos presupuestarios**

Base 14. Dotación presupuestaria.

TÍTULO II.

**Régimen Jurídico**

Base 15. Régimen Jurídico.
Base 16. Órganos competentes.
Base 17. Infracciones y Sanciones.
Base 18 Incumplimiento y reintegro.
Base 19. Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.

TÍTULO III

**Procedimiento de concesión**

Base 20. Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites e inscripción en el REPPE.
Base 21. Documentación necesaria para la solicitud e interoperabilidad.
Base 22. Subsanación o mejora de la solicitud.
Base 23. Procedimiento de concesión.
Base 24. Criterios de valoración de las solicitudes.
Base 25. Resolución.
Base 26. Recursos.
Base 27. Renuncia a la subvención.
Base 28. Modificación de la resolución de concesión.
Base 29. Publicidad de las subvenciones concedidas.
Base 30. Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.
Base 31. Notificación electrónica.

TÍTULO IV.

**Ejecución, justificación y control**

Base 32. Plazo de ejecución.
Base 33 Plazo de justificación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

34. oinarria. Azpikontratazio-baldintzak.
35. oinarria. Dirulaguntzen justifikazioa.
36. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea.
37. oinarria. Laguntzen bateragarritasuna.
38. oinarria. Erakunde onuradunen betebeharrak.
39. oinarria. Dirulaguntzaren onuradun diren erakundeetako arduradunen datu pertsonalen tratamendua.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzen helburua.*

Dirulaguntzen programa honen bidez, langabezian dauden pertsonak laneratzea lortu nahi da, eta, aldi berean, Bizkaiko enpresetan askotariko talentua sar dadin laguntzea.

Programa hiru dirulaguntza-ildoren bidez gauzatuko da:

1. arloa. Langabeei laneratzen laguntzea; batez ere, 45 urtetik gorakoei, luzaroko langabeei, desgaitasunen bat dutenei eta bazterkeria-arriskuan daudenei.

2. arloa. Gazteak laneratzen laguntzea.

3. arloa. 3R Gaztea programa.

2. oinarria. *Definizioak.*

1. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak:

a) Gizarteratzeko Bizkaiko foru-zerbitzu sozialen mendeko edozein zerbitzu, zentro eta programa publikotan dauden pertsonak; ekainaren 6ko 60/2024 Foru Dekretuaren 15.1.a) artikuluan definitzen dira zerbitzuok.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuen iritziz, legez onartutako balioespen- eta diagnostiko-tresna tekniko komunak erabiliz bazterkeria-arriskuan daudela uste duten pertsonak, egoera hori oinarrizko gizarte-zerbitzu

Base 34. Condiciones de subcontratación.
Base35. Justificación de las subvenciones.
Base 36. Pago de la subvención.
Base 37. Compatibilidad de las ayudas.
Base 38. Obligaciones de las entidades beneficiarias.
Base 39. Tratamiento de datos personales de las personas responsables de las entidades beneficiarias de la subvención.

TÍTULO I

Disposiciones Generales

Base 1. *Objetivo de las subvenciones.*

Mediante este programa de subvenciones se pretende lograr la inserción laboral de las personas en situación de desempleo, y al mismo tiempo favorecer la incorporación de talento diverso en las empresas de Bizkaia.

El programa se llevará a cabo a través de tres líneas de subvención:

Área 1. Acompañamiento a la inserción laboral de personas desempleadas principalmente personas mayores de 45 años, de larga duración, con discapacidad, y personas en riesgo de exclusión.

Área 2. Acompañamiento a la inserción laboral de personas jóvenes.

Área 3. Programa 3R Gaztea.

Base 2. *Definiciones.*

1.Personas en riesgo de exclusión:

a) Personas que se hallan incorporadas a cualesquiera de los servicios, centros y programas de carácter público dependientes de los servicios sociales forales para la inclusión de Bizkaia que se definen en el artículo 15.1.a) del Decreto Foral 60/2024, de 6 de junio.

b) Personas que, a juicio de los servicios sociales de base de algún ayuntamiento del Territorio Histórico de Bizkaia, se considere que están en situación de riesgo de exclusión utilizando los instrumentos técnicos comunes de valoración y diagnóstico legalmente aprobados,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eskudunaren txostenaren bidez egiaztatuta.

acreditando tal circunstancia por informe de servicio social de base competente.

c) Guraso bakarreko familia bateko aita edo ama, ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengo bat edo batzuk bere ardurapean dituela egiaztatzen badu.

c) El padre o la madre de una familia monoparental/monomarental, que acredite tener a su cargo a uno o varios descendientes que no desempeñen actividad retribuida.

d) Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean ezarritako prestazio ekonomikoen edo martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretuak (abenduaren 13ko 207/2011 Foru Dekretuak emandako idazkeran) araututako gizarteratzeko laguntza berezien onuradun izan diren pertsonak, bai eta haien bizikidetza-unitateko kideak edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak ere.

d) Personas que hayan obtenido la condición de beneficiarias de las prestaciones económicas establecidas en la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, o de las ayudas especiales para la inclusión social reguladas, por el Decreto Foral 60/2011, de 22 de marzo, en redacción dada por Decreto Foral 207/2011, de 13 de diciembre, así como los miembros de su unidad de convivencia, o beneficiarias del ingreso mínimo vital regulado en la Ley 19/2021, de 20 de diciembre, por la que se establece el ingreso mínimo vital.

e)Toxikomano ohiak (alkoholiko ohiak eta drogazale ohiak). Halakotzat hartuko dira, foru-dekretu honetan aurreikusitako laguntzen ondorioetarako, dagokion talde terapeutikoaren iritziz desintoxikazio- eta desohitze-faseak gainditu eta 6 hilabete baino gehiagoko tratamendu jarraitua daramatenak, lanaren bidez gizarteratzeko programa bati atxikitzea interesgarritzat jotzen bada.

e) Personas extoxicómanas (exalcohólicas y exdrogadictas), considerando como tales a los efectos de las ayudas previstas en este decreto foral, a aquellas que, habiendo superado a juicio del equipo terapéutico correspondiente las fases de desintoxicación y deshabituación y llevando más de 6 meses de tratamiento continuado, se considere de interés su adscripción a un programa de reinserción social a través del trabajo.

f) Genero-indarkeriaren biktimak, Genero-indarkeriaren aurka babes osoa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egiaztatuta, edo Bizkaiko Foru Aldundiko Indarkeria Matxistatik Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak esku hartu duela egiaztatzen duen agiriaren bidez.

f) Personas víctimas de violencia de género, acreditado según lo dispuesto en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género o mediante documento acreditativo de la intervención por parte del Servicio de Protección frente a la Violencia Machista y de Apoyo a las Familias de la Diputación Foral de Bizkaia.

g) Preso ohiak, integrazio-prozesuetan dauden errefuxiatuak eta etxerik gabeko bizimodua uzteko prozesuak gainditu dituzten pertsonak.

g) Personas exreclusas, personas refugiadas en procesos de integración y personas que hayan superado procesos de sinhogarismo.

h) Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima gisa detektatutako emakumeak.

h) Mujeres detectadas como víctimas de trata con fines de explotación sexual.

2. Desgaitasunen bat duten pertsonak, hau da,

2. Personas con discapacidad, entendiendo por tales

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

% 33ko edo hortik gorako desgaitasun-portzentajearen balorazioa egiaztatzen dutenak.

aquellas que acrediten una valoración de la situación de discapacidad en un porcentaje igual o superior al 33 %.

3. Luzaroko langabeak: enplegu bila aktiboki ibilita prestakuntza hasi baino 13 hilabete lehenago hilabete baino gehiago lan egin ez dutela egiaztatzen dutenak edo "Luzaroko langabearen izaera betetzeari buruzko txostena" du, Lanbidek emana..

3. Persona desempleada de larga duración: persona que estando en búsqueda activa de empleo acredite no haber trabajado más de un mes en un período de 13 meses anteriores al inicio de la formación o bien dispone del *"Informe de cumplimiento de la condición de persona desempleada de larga duración"* expedido por Lanbide.

4. Langabezia-egoera: langabezia-egoeratzat hartuko da pertsona Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa etengabe inskribatuta egon eta Gizarte Segurantzan edo mutualitate baliokidean alta emanda ez dagoen denbora.

4. Situación de desempleo: Se considerará situación de desempleo el tiempo que de forma ininterrumpida la persona haya estado inscrita como demandante de empleo en Lanbide/Servicio Vasco de Empleo y no se encuentre en situación de alta en la Seguridad Social o mutualidad equivalente.

5. Parte-hartzailea: parte-hartzailetzat hartzeko, pertsonek baldintza hauek bete behar dituzte, prestakuntza hasten den egunean, edo, bestela, haiek prestakuntzarekin hasten diren egunean, baldin eta beranduago bada:

a) Dekretu honetako arlo bakoitzean adierazitako kolektiboren bateko kide izatea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta egotea, langabezian edo enplegua hobetzeko egoeran, betiere lan-kontratuak ez badu gainditzen aplikatzekoa den hitzarmenean ezarritako lanaldiaren % 50.

Egoera erregularizatu gabe duten migratzaileen kasuan, Lanbidek eskainitako prestakuntza- eta orientazio-zerbitzuak eskatu izana egiaztatu beharko dute.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.

Pertsona bat prestakuntzaren hasiera-eguna baino beranduago hasten bada prestakuntza jasotzen, ezinbestekoa izango da prestakuntza-orduen % 25 baino gehiago dagoeneko emanda ez egotea, pertsona hori parte-hartzailetzat hartzeko.

5. Participante: Para ser consideradas participante, las persona, a la fecha de inicio de la formación, o a la fecha de incorporación a la misma, en caso de ser posterior, ha de cumplir las siguientes condiciones:

a) Pertenecer a alguno de los colectivos señalados en cada área de este decreto.

b) Estar inscrita en Lanbide/Servicio Vasco de Empleo, en situación de desempleo, o de mejora de empleo siempre y cuando el contrato de trabajo no supere el 50% de la jornada laboral establecida en el convenio de aplicación.

En el caso de personas migrantes, que no tienen regularizada su situación, habrán de acreditar haber solicitado los servicios de formación y orientación ofertados por Lanbide.

c) Estar empadronada en el Territorio Histórico de Bizkaia

Cuando la incorporación a la formación se produzca con posterioridad a la fecha de inicio de la formación será requisito que no se haya impartido más de un 25% de las horas de formación para que esa persona tenga la condición de participante.

6. Laneratzen laguntzea: fase hauen bidez egindako jardueren multzoa: lan-orientazioa, lan-aktibazioa,

6. Acompañamiento a la inserción laboral: conjunto de actuaciones realizadas a través de las siguientes fases:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lan-bitartekaritza, prestakuntza eta laneratzea, laneratzeko ibilbideen bidez edo parte-hartzaileei zuzendutako programen bidez definituak.

orientación laboral, activación laboral, intermediación laboral, formación e inserción laboral definidas a través de itinerarios de inserción laboral, o de programas dirigidas a las personas participantes.

Jarduketa horiek dira erakunde onuradunak egin behar duen diruz lagundu daitekeen egitatea.

Estas actuaciones constituyen el hecho subvencionable a realizar por la entidad beneficiaria.

Pertsona batek ibilbide edo programa bakar batean parte hartu ahal izango du.

Una persona podrá participar solamente en un único itinerario o programa.

7. Programa: dekretuaren 3. arloari dagozkion jarduketa pertsonalizatuen multzoa da, eta horiek dira erakunde onuradunak egin behar duen diruz lagundu daitekeen egitatea.

7. Programa: comprende el conjunto de actuaciones personalizadas correspondientes al área 3 del decreto, que constituyen el hecho subvencionable a realizar por la entidad beneficiaria.

8. Diploma eta laneratze-ibilbidera bertaratu izanaren ziurtagiria: programako prestakuntza-ordu guztien % 75 gutxienez egin duten parte-hartzaileek, ezagutza-proba eginez aprobetxamendu egokia erakutsiz gero, diploma bat jasoko dute, lortutako gaitasuna egiaztatuko duena. Aprobetxamendu egokirik erakutsi ezean, ibilbidera bertaratu izanaren ziurtagiria jasoko dute.

8. Diploma y Certificación de asistencia al itinerario de inserción: Las personas participantes que hayan asistido a un mínimo de un 75 % del total de las horas de formación programadas demostrando un aprovechamiento adecuado mediante prueba de conocimiento realizada recibirán un diploma, que acreditará su aptitud. Si no demostraran aprovechamiento adecuado recibirán un certificado de asistencia al itinerario.

Bai diploman, bai, hala badagokio, ibilbidera bertaratu izanaren ziurtagirian, honako informazio hau jaso beharko da:

- Egindako orientazio- eta bitartekotza-orduak
- Egindako aktibazio eta prestakuntza guztien edukia
- Ibilbidean egindako jarduketen ordu-kopuruaren eta daten xehetasuna

Tanto en el diploma como en su caso, en el certificado de asistencia al itinerario, deberá constar la siguiente información:

- Horas de orientación e intermediación realizadas
- Contenido de las diferentes activaciones y formaciones realizadas
- Detalle del número de horas y fechas de realización de las diferentes actuaciones realizadas en el itinerario

Ezagutza-proba gainditzen ez badute, prestakuntzara bertaratu izanaren ziurtagiri bat baino ez dute jasoko. Ziurtagiri horretan, ezarritako proba gainditu ez dutela adieraziko da.

En el caso de no superar la prueba de conocimiento únicamente recibirán un certificado de asistencia a la formación, donde se indicará que no han superado la prueba establecida.

Desgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, gutxieneko bertaratzea programako orduen % 50 izango da.

En el caso de personas con discapacidad intelectual o enfermedad mental, la asistencia mínima será del 50 % de las horas programadas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ezagutza-proban ariketa batzuk egin beharko dira, parte-hartzaileek prestakuntza-ekintzan lortu dituzten gaitasunak zenbateraino barneratu dituzten neurtzeko.

La prueba de conocimiento consistirá en un conjunto de ejercicios que permitan ponderar el grado de dominio de las personas participantes de las competencias adquiridas en base a la acción formativa.

Aurreko kasuetan, egiaztagirietan, gutxienez, egite-datak, ordu-kopuruak eta prestakuntzarako gai-zerrenda adieraziko dira.

En los casos anteriores, en los documentos acreditativos se indicará, al menos, las fechas de realización, duración en horas y temario de la formación.

Parte-hartzaile batek ikastaroa utzi duela ulertuko da ez bada bertaratu prestakuntzarako programatutako orduen gutxienekora (% 75 edo % 50). Ez da uztetzat hartuko ikastaroa egiteko programatutako gutxieneko ordu-kopurua ez betetzea, baldin eta inguruabar hori justifikatzen bada. Ondorio horietarako, enplegua lortzea edo behar bezala justifikatutako inguruabar pertsonalak onartuko dira.

Se entiende que una persona participante ha abandonado el curso cuando no ha asistido al mínimo de las horas programadas (75% o 50%) de la formación. No se considerará abandono la falta de asistencia al mínimo de las horas programadas por causa justificada, entendiendo por tal, motivo de empleo, o circunstancias personales debidamente acreditadas.

9. Lan-orientazioa. Aukera profesionalei buruzko aholkularitza ematea eta enplegua aktiboki bilatzeko jarduerak identifikatzea, bai eta parte-hartzailearen profilari eta ibilbideari egokitutako laguntza pertsonalizatua ematea ere. Horrez gain, aholkularitza eta laguntza tekniko osagarria emango dira curriculuma definitzeko eta lana bilatzeko teknikak aplikatzeko.

9. Orientación laboral: Consistirá en el asesoramiento de alternativas profesionales, e identificación de actuaciones de búsqueda activa de empleo, así como en el acompañamiento personalizado adecuado al perfil e itinerario de la persona participante. También conllevará el asesoramiento y ayuda técnica adicional para la definición de su currículo, y para la aplicación de técnicas para búsqueda de empleo.

a) Informazioa, banakako egoeraren diagnostikoa, aholkularitza, motibazioa eta laneratze-prozesuan pertsonak laguntzea ditu helburu. Jarduketa hauek sartzen dira:

1. Diagnostiko indibidualizatua eta profila egitea.

2. Enplegurako ibilbide pertsonalizatua diseinatzea.

3. Laguntza pertsonalizatua ematea ibilbidea garatzeko eta jarduera-konpromisoa betetzeko.

4. Curriculuma definitzea, lanbide-profila lanbide-gaitasunen arabera adierazita.

a) Tiene por objeto la información, el diagnóstico de la situación individual, el asesoramiento, la motivación y acompañamiento de las personas en su proceso de inserción laboral. Comprende las siguientes actuaciones:

1º Diagnóstico individualizado y elaboración del perfil.

2º Diseño del itinerario personalizado para el empleo.

3ºAcompañamiento personalizado en el desarrollo del itinerario y el cumplimiento del compromiso de actividad

4º La definición del currículo, que refleje el perfil profesional en términos de competencias profesionales.

b) Lan-orientazioa banakakoa izango da.

b) La orientación laboral será de carácter individual

c) Lan-orientazioaren iraupena: erakunde onuradunak gutxienez 5 ordu eta gehienez 15 ordu eskainiko dizkio lan-orientazioari parte-hartzaile

c) Duración de la orientación laboral: la entidad beneficiaria dedicará un mínimo de 5 horas y un máximo de 15 horas por persona participante.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bakoitzeko.

10. Lan-aktibazioa

a) Prestakuntza-eskaintzari buruzko, lan-arautegiari buruzko (lan-kontratuak, eskubideak eta betebeharrak, lan-hitzarmena) eta lan-merkatuari buruzko informazio-saioak izango dira:

1. Enplegua aktiboki bilatzeko teknikak aplikatzea. Horren barruan sartzen da enplegua bilatzeko informazioa ematea eta bitarteko, teknika eta tresna eskuragarrien oinarrizko erabilera irakastea, bitarteko telematikoak eta sare sozialen erabilera barne.

2. Erabiltzaileen enplegu-aukerak areagotzeko baliagarriak izan daitezkeen lan-merkatuari eta enplegu-politika aktiboei buruzko datuak edo inguruabarrak jakinaraztea.

b) Lan-aktibazioaren iraupena: erakunde onuradunak gutxienez 5 ordu eta gehienez 20 ordu eskainiko dizkio ibilbide bakoitzari.

c) Aurrez aurre edo bitarteko telematikoen bidez egin ahal izango da.

11. Lan-bitartekaritza: laneratzeko ibilbidean parte hartzen duten pertsonei lan-merkatuan sartzeko laguntza ematea izango da, enpresekin topaketak eginez eta eskaintzak biltzeko planak garatuz. Lehen aukeraketa bat egingo da, lan-eskaintzei ondoen egokitzen zaizkien profilak identifikatzeko.

a) Enpresek dituzten enplegu-eskaintzen eta langile-beharren prospekzioa eta identifikazioa barne hartuko ditu. Eskaintza horiek prestakuntzaren aurretik eta ibilbide osoan identifikatuta egon beharko dute.

b) Horretarako, bisitak egingo dira enpresetara, eta elkarrizketak enpresa-erakundeekin.

c) Bete gabeko lanpostuak dituzten jarduera ekonomikoko sektoreak identifikatu behar dira, eta lanpostu horien profil profesionalak zehaztu.

10. Activación laboral

a) Consistirá en sesiones grupales de información sobre oferta formativa, normativa laboral (contratos de trabajo, derechos y obligaciones, convenio colectivo) y mercado laboral, que contendrán:

1º La aplicación de técnicas para la búsqueda activa de empleo. Contemplará la provisión de información, y manejo básico de los medios, técnicas y herramientas accesibles para la búsqueda de empleo, incluyendo los medios telemáticos y el uso de las redes sociales.

2º La comunicación sobre los datos o las circunstancias relativas al mercado de trabajo y las políticas activas de empleo que puedan resultar de utilidad para incrementar las oportunidades de empleo de las personas usuarias.

b) Duración de la activación laboral: la entidad beneficiaria dedicará un mínimo de 5 horas y un máximo de 20 horas por itinerario.

c) Podrá realizarse de forma presencial o mediante la utilización de medios telemáticos.

11. Intermediación laboral: Consistirá en el apoyo a las personas participantes, según los casos, para su incorporación al mercado laboral, mediante encuentros con empresas y desarrollo de planes de captación de ofertas. Incluirá una preselección para identificar los perfiles que más se ajustan a las ofertas de empleo.

a) Comprenderá la prospección e identificación de ofertas de empleo y de necesidades de personal por parte de las empresas, que deberán estar identificadas con anterioridad a la formación y durante todo el itinerario.

b) A tal fin se habrán realizado visitas a empresas, y la interlocución con organizaciones empresariales.

c) Se han de identificar los sectores de actividad económica que dispongan de puestos de trabajo sin cubrir y determinar los perfiles profesionales de dichos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ODUB-AI91-PLBY-XV4W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

puestos.

Horren ondorioz, laneratzeko ibilbideak osatzen dituzten prestakuntzak proposatuko dira.

Como resultado se propondrán las formaciones que integren los itinerarios de inserción.

d) Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere 10 ordu emango ditu lan-bitartekaritzan.

d) El número máximo de horas de dedicación a la intermediación laboral por persona participante será de 10 horas.

12. Prestakuntza. Prestakuntza taldekoa eta okupazionala izan behar da, eta ezaugarri hauek izango ditu:

12. Formación. La formación ha de ser ocupacional grupal, con las siguientes características:

a) Prestakuntza presentziala, telematikoa edo biak izan daitezke. Nolanahi ere, erakunde onuradunaren betebeharra izango da prestakuntza ematen duen zentroak gai-zerrenda teoriko eta praktiko bat daukala ziurtatzea, eta horretarako irakasle, ekipamendu eta lokal egokiak ere badauzkala ziurtatzea, parte-hartzaileei prestakuntza-ekintzaren helburuko lanposturako eskatzen diren funtzioak betetzeko beharrezkoak diren ezagutzak emateko.

a) La formación podrá ser presencial, telemática o ambas. En todo caso, será obligación de la entidad beneficiaria asegurar que el centro que imparta la formación disponga de un temario teórico–práctico impartido mediante la utilización de un profesorado, equipamiento y locales con el nivel de calidad adecuado para transmitir a las personas participantes los conocimientos necesarios para llevar a cabo las funciones requeridas por el puesto de trabajo objeto de la acción formativa.

b) Prestakuntzak prestakuntza-ekintza hauek izan ditzake:

b) La formación podrá contener las siguientes acciones formativas:

1. Oinarrizko gaitasun digitalak: prestakuntza hori sartu ahal izango da lantzen den ibilbidearen arabera; ekintza horrek gutxienez 20 orduko iraupena izango du, eta gehienez 60 ordukoa.

1º Competencias digitales básicas: se podrá incluir esta formación en función del itinerario que se trabaje, dicha acción tendrá una duración mínima de 20 horas y máxima de 60 horas.

2. Funtsezko gaitasunak: hautazkoak, baldin eta irakasgaia parte-hartzaileen ezaugarrien arabera ematea beharrezkoa eta egokia dela justifikatzen bada. Funtsezko gaitasunei buruzko prestakuntza horrek hizkuntza, gaztelania edo euskara eta matematika landuko ditu, gehienez 340 orduz.

